

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bi ahotako atseginez



Aritz Galarraga
@aritzgalarraga

Izena ezaguna nuen, itzultzaile gisa neukan gordeta memoria internoan. Vladimir Kaminer idazle alemanaren *Errusiar diskoteka* narrazio liburu komikoa euskaratu baitzuen (Pasazaite, 2015) Mari Jose Kerejetak –inpaktuzkoa izan zen, gainera, aurkezpen bideoa, zeinean agertzen baita lorotxo batekin sorbaldan–. Jean Etxepareren *Beribilez* hartu arte, eta irakurri arte 1987ko edizioaren sarrera testua, idatzi ere idazten zuenik ez nekien, ordea. Esan nuen ordukoan: Mari Jose Kerejetaren hitzaurrea da gordina, eta horrexegatik biziki interesantea. Etxepareri egindako aitzinsolasak jakin-mina piztu zidan; hala iritsi nintzen momentuz bakarra duen sorkuntza lan honetara, *Ezezagun baten kuadernoa*, poema bilduma, Irun Hiria literatura sariketa irabazitakoa.

Kerejetaren beraren hitzekin esateko, “amorioari buruzko erreflesioa” dukegu, “akaso gurean oso ohizkoa ez den malditismoaren kutsu horrekin. Ez maitasun xamar eta inozoa”. Osotoro akort, nahiz maitasunaz, denboraren iragaiteaz, galeraz egindako hausnarketaz gain, gauza gehiago ere baden liburua. Bada, adibidez, halako *carnet de voyage* bat, Venezia, akropolis –“urrunean, Pireoa ere beste portu bat da”–, Bosforoko arrasgorri azkengabea. Bada erreferentzia literario sorta bat, Pavese, Celan, Lowry, halako batean Sappho eta Yourcenar. Bada trahestismo ariketa bat: “Neroni izan nintzen gizon hori”. Eta bada alkoholak zipriztindutako bidaldi bat, etilikoa, soluzio emaila tarteka, “Farmakopea” poeman bezala: “Urrun-minarentzat, / itzulbiderik ez dagoenean, / ginebra hutsa, hotz-hotza”.

Ezezagun baten kuadernoa

MARI JOSE KEREJETA

Kutxa, 1988



“Emakumeek idatziriko liburu gehiegi” ez zegoen garaian argitaratua, Felipe Juaristik aitortu zuen: “Aspaldian euskarazko poemak irakurtzean senditzen ez nuen sentsazioa jabetu da nigan, sentsazio itogarria eta itogarria moduan atseginkoia”. *Dibortzio tramitazioa* poeman esaten den bezala, “bi ahotako atseginez” irakurtzen dela, alegia. Gerardo Markuletak, aldiz, gora ekarri zuen, “poema liburuak berezko balio handia du eta euskal poesiaren bilakaeran giltzarri ttipi jotzeko modukoa da”. Lastima da, hartara, Kerejeta liburu bakarrean geratu izana. Sasoi baluke oraindik, bete-betea sartuko litzateke tropelaren belaunaldian –besterik da halakorik nahiko ote lukeen–, zeina ez dagoen, prezisamente, emakume idazleez gainezka. Bien bitartean, hor dugu *Ezezagun baten kuadernoa*, gordina, eta horrexegatik biziki interesantea. ■